

HOBEA IZANGO DA MUNDU BAT ZABORRIK GABE?

Baziren behin Garikoitz eta Mikelatx izeneko bi anai biki, Mendaron bizi ziren eta han ez zegoen zaborrik. Asko gustatzen zitzaien mendia eta natura, beti zeuden laguntzeko prest, askotan joaten ziren mendira, beti janzen zuten mendiko arropa, biak berdinak ziren begi marroiak, baxuak, ile kizkurdunak...

Egun batean Garikoitz eta Mikelatx Bergarara etorri ziren lehengusuak bisitatzerara, bazkaltzeko ordua iritsi zenean konturatu ziren Bergaran ez zegoela arraindegi ezta harategirik ere. Biak geratu ziren harrituta. Bergarako lehengusuei galdetzerara joan ziren eta lehengusuek esan zieten Bergaran inoiz ez zela harategirik ezta arraindegirik egon. Jendeak zabor asko botatzen zuen eta animali gehienak hil egiten zirenez, ez zegoen arazorik saltzeko baina jendeak ez zuen erosten, orduan arraindegi eta harategiak itxi egin zituzten. Bi bikiak harrituta gelditu ziren, zerbait egitea pentsatu zuten baina ez zekiten zer egin.

Momentu hartan Mikelatxi ideia bat bururatu zitzaion, pentsatu zuten ideia zoragarri bat izango zela talde bat sortzea Bergara garbitzeko.

Azkenean ideia horrekin aurrera egin zuten baina zerbait egin behar zuten jendea ohartzeko. Pentsatu zuten Bergara osoan karteak jartzea ez zela ideia txarra baina hala ere beste ideia bat pentsatzen sailatu ziren baina azkenean hasierako ideiarekin gelditu ziren, bi anaiak oso estresatuta zeuden eta burua argitzeko mendira joan ziren mendi buelta bat ematera. Oso harro zeuden beraien buruetaz, ikusten zutelako Bergarak laguntza behar zuela eta bi bikiak laguntzen zeudelako.

Hurrengo egunean kartelak jartzera joan ziren, ordubete egon ziren Bergaratik kartelak jartzen, eta kartelean jartzen zuen 17:00etan Bergarako plazan elkartuko zirela eta hau esan zuten bi bikiak:

- Jende asko etorriko dela uste duzu? -esan zuen Mikelatxek.
- Ba egia esan, ez dut uste inor etorriko denik -esan zuen Garikoitzek.

Kanpaiak jo zituzten, 17:00ak ziren, eta plazan ez zegoen inor eta jendeak gaizki begiratzen zieten oso desatsegina zen. Handik gutxira pixkanaka-pixkanaka jendea etortzen hasi zen eta Garikotz eta Mikelatx lasaitzen hasi ziren konturatu zirelako beraien ideiak ez zuela huts egin. Kuadrila handi bat elkartu ziren Bergarako plazan Mikelatx eta Garikoitzek azaldu zieten zer lortu nahi zuten, denak joan ziren Bergara garbitzera beraien herria salbatzeko asmoz. Hilabete batzuk pasata Bergaran harategi bat ireki zuten Garikoitz eta Mikelatxek egin zuten lanari esker.

Bi bikiak 2014ko urtarrilaren 7an hil ziren, baina taldea ez zen desagertu, beraien omenez elkartzen jarraitu zuten eta gaur egun ere oraindik elkartzen dira. Bergaran badaude harategi eta arraindegiak, hasieran arraindegi eta harategietara ez zen jende asko joaten jendearentzat oso arrazoa zelako, baina denborarekin jendeak Bergarako harategi eta arraindegietan erosten hasi zen, Bergarako lehen harategiari

Garikoitz eta Mikelatx izena jarri zioten. Zabor kopurua asko jaitsi da eta hori oso positiboa da Bergara herriarentzat.

Eguzki